

MUSIKA DBH 4 ENFOKEA

Musika komunikazio bidea eta hizkuntza bezala askotan irudiari lotuta agertu da. Komunikazio bide guztiek emisorea, mezua eta hartzailea dute, honetarako hizkuntza berezi bat erabiltzen da, eta kode honek mezuari zentzua ematen dio. Ikusizko eta entzutezko erlazio artistikoa egoera edo manifestazio askotan eman da eta ematen da, drama liturgikoa, opera, musikalak eta gaur egun bideo jokoak, filmak, iragarkiak...e.a. hau dela eta oso garrantzitsua da hau lantzea, lotura honetan parte hartzen duten elementu guztiak aztertzea eta hauek ikuslegoarengan duten eragina hausnartzea ezinbestekoa da ikasle kritikoak lortzeko horrela jabetzen direlako ikus entzutezko produkzioak gudan duten eraginaz.

Landuko ditugun ia gauza guztiak ordenagailuetan landuko ditugu, musika eta teknologia berriak oso lotuta daudelako gaur egun egiten den musikan. Horretarako Hainbat programa erabiltzen ikasiko ditugu

Orokorki landuko duguna

Musika eta zinema

Musika eta iragarkiak, honen historia, publizitaterako erabiltzen diren musika mota guztiak, musikaren funtzioa iragarkietan.

Musika eta bideojokoak bideo jokoan musikaren historia, bideojokoan musikaren helburuak genero desberdinetarako musika, bideojokoan musikaren funtzioa.

Musika eta bideoklipak bideokliparen historia eta helburua, honetan kurtsu bukaeran bideoklip bat sortzen dugu.

Hau lortzeko ikasleei filma baten zati bat ematen diet edo iragarki bat edo marrazki bizidunen zati bat, honekin musikako programa bereziak erabiliz ,audacity eta windows movie maker hain zuzen ere ,musika egokia eta desegokia sortu behar dute kontutan izanda aurretik ikasleei azaldu zaien guztia. horrela eremu honetan landu dena modu praktikoan lantzen dute.

Musikaren garrantzia,bere funtzioa eta lanbideak. Gaur egun musikak duen garrantzia baloratzeko historian zehar musikak izan duen funtzioaz aritzen gara, horrela gaur egun dauden musikari lanbideak aztertzen ditugu, musikariak, teknikariak, promotoreak, irakasleak, musikologoak, musikaterapeutak, manager, kritiko musikalak, mezenas...e.a. Honekin lotuta guk kontsumitzaileak bezala dugun papera hausnartzen dugu.

Musika munduan. Gure inguru hurbila aztertu ondoren munduko beste kulturetan egiten dena lantzen dugu, oso interesgarria delako Afrikan, Asian, Amerikan, Zelanda berrian egiten dutena ikustea. Honetarako ahozko saio batzuk prestatzen ditugu eta Haur Hezkuntzako 4-5 urte duten umeei saio berezi batzuk eskaintzen dizkiegu horiek gure gelara etortzen dira guk prestatutakoan parte hartzera. Oso aberasgarria izaten da bi aldeetarako. Eredu hau lantzeko lurralde desberdinetako musikaren ezaugarriak aztertuko genituzke eta beraien musika entzun eta interpretatu.

Kurtsoari amaiera emateko ikus-entzutezko gela bat prestatzen dugu, non kurtsoan zehar landu dena ikusteko aukera egoten den.

Erabiliko ditugun baliabideak:

Oinarrizkoena musika artxibo mota guztiak ezagutzea da, hauen ezaugarriak, kantak CDetatik nola atera, nola eraldatu, artxibo mota moldatu. Eta gaur egun erabiltzen diren teknologiak eta tresnak landu eta erabili.

Partitura editoreak, hauekin ordenagailuaren bidez partitura bat idazten ikasiko dugu sortutakoa gero beste erreproduzio tresna batean entzun ahal izateko edo beste programa batekin moldatu ahal izateko.

Erritmo kutxak, dispositibo elektronikoko bat da, honek sekuentzia erritmiko bat sortzea ahalbidetzen digu perkusiozko musika tresnentzat, modu honetan musikaren lengoaiaren hainbat arlo lantzen ditugu, eta logikoa denez erritmoa bereziki.

Sekuentziadoreak, hauek aldi berean hainbat soinuekin lan egitea ahalbidetzen digu hauek grabatuak izan daitezke edo guk sortutakoak, tresna honekin soinuen parametroak lantzen dira altuera, tinbrea, iraupena eta intentsitatea, hauek modifikatu daitezke eta horrela soinua berriak sortzen dira. Sortzeko tresna ikaragarria da hau.

Audio editoreak, tresna hau aurrekoarekin oso lotuta dago eta uhin forma desberdinen gainean lan egitea ahalbidetzen digu.

Nahaste mahaiak, hainbat lanetarako soinua grabatu behar ditugu, honetarako ikastolak duen nahaste mahaiaren funtzioak erabiltzen ikasiko genuke.